7.– Irakasleak Ebaluatu eta Kontrolatzeko Batzordeak, beste eginkizun batzuen artean, diziplina-espedienteak irekitzeko ekimena izango du.

8.– Honako hauek osatuko dituzte, gutxienez, eskolako batzordeak, beren-beregi arautuak izan ezik: zuzendariak edo hark bere ordez izendatuko duenak, eta Eskola Batzarra osatzen duten taldeen ordezkari banak. Ekonomia Batzordean administratzailea egongo da.

Batzordeetako kideak Eskola Batzarreko taldeetako kideek aukeratuko dituzte euren artean eta artetik. Batzordeetako kide izateko ez da beharrezkoa Eskola Batzarreko kide izatea.

Zuzendariak edo hark bere ordez izendatzen duenak deituta bilduko dira batzordeak, eta, baita ere, batzordeko bi kidek edo Eskola Batzarreko kideen bostenak eskatuta. Bilerako burua zuzendaria edo hark bere ordez izendatzen duena izango da.

Batzordeetako kideek euren artetik aukeratuko dute idazkaria. Idazkariak bileretako aktak egingo ditu eta, horretarako eskumena daukaten pertsonen proposamena jasota, bileretarako deiak.

Erabakiak hartu ahal izateko gehiengo soila beharko da. Kideek aktan agerrarazi ahal izango dute euren botoa.

### III. KAPITULUA
### KIDE ANITZEKO ORGANOEN ARAUBIDEA

***10. artikulua.***– Bilerak eta bileretarako deiak.

1.– Bileretarako deiak ohikoak eta ezohikoak izango dira.

2.– Bileretarako deiak, oro har, ohikoak izango dira. Ikastegiko Batzarrak ohiko bilera bi egingo ditu, gutxienez, seihileko bakoitzean.

3.– Ezohiko bilera egingo da bileran aztertuko den gaiak hala eskatzen duenean eta, baita ere, arautegi aplikagarriak xedatutako kasuetan. Ezohiko bileretako az-

5.– La Comisión Económica se encargará de las siguientes funciones:

a) Informar sobre las necesidades y prioridades cara a la confección del proyecto de presupuesto.

b) Asistir al Administrador o Administradora del Centro en la Dirección, coordinación y gestión del presupuesto.

6.– La Comisión de Prácticas del Alumnado se encargará de la gestión y el control de las prácticas que realice el alumnado según los criterios que se fijen por la Junta de Escuela.

7.– La Comisión de Evaluación y Control de Profesorado tendrá como funciones, entre otras, la iniciativa en la apertura de expedientes disciplinarios.

8.– Todas las Comisiones de la Escuela, excepto las reguladas expresamente, estarán constituidas, como mínimo, por el Director o Directora o persona de su equipo en quien delegue y al menos un representante de cada uno de los colectivos que integran la Junta de Escuela. En la Comisión Económica estará el Administrador o Administradora.

Los miembros de las Comisiones serán elegidos por los miembros de la Junta de Escuela de cada colectivo. No será necesario ostentar la condición de miembro de la Junta de Escuela, para formar parte de las Comisiones.

Las Comisiones se reunirán a instancias del Director o Directora o persona en quien delegue, que actuará como Presidente o Presidenta, de dos de sus miembros, o de 1/5 de los miembros de la Junta de Escuela.

Las Comisiones nombrarán de entre sus miembros un Secretario o Secretaria que levantará acta de cada reunión y convocará las reuniones a propuesta de las personas legitimadas.

Los acuerdos se tomarán por mayoría simple siendo posible que cualquier miembro haga constar su voto particular.

### CAPÍTULO III
### RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO DE LOS ÓRGANOS COLEGIADOS

***Artículo 10.***– Clases de convocatorias y periodicidad de las sesiones.

1.– Las convocatorias podrán ser ordinarias y extraordinarias.

2.– Las convocatorias deberán ser, generalmente, para sesiones ordinarias. Las Juntas de Centro se reunirán con carácter ordinario, como mínimo, dos veces por semestre.

3.– Las convocatorias serán extraordinarias cuando la naturaleza del asunto lo requiera o así lo disponga la normativa aplicable. En el orden del día de las sesiones

tergaien zerrendan ez dira agertuko gai hauek: aurreko akten onespena eta galde-eskeak.

4.– Presazko bilerak ezohikoak izango dira eta deia gutxienez 24 ordu lehenago egin beharko da. Halakoetan, bilera egiteko arrazoia benetan premiazkoa dela onartu beharko da bileraren hasieran. Onartzen ez bada, bilera bertan behera geratuko da besterik gabe.

***11. artikulua.–*** Bilerarako deia egitea.

1.– Kide anitzeko organoetako buruek egin behar dute kasuan kasuko organoaren bilerarako deia.

2.– Dena dela, kide anitzeko organoko kideen % 25ek hala eskatzen badute, bilerarako deia egin beharko da. Bilera ezohikoa izango da eta gehienera ere zazpi egun baliodunekoepean egingo da, eskaera egiten denetik hasita.

3.– Bilerarako deia organoko idazkariak bideratuko du, denbora nahikoarekin eta, edonola ere, bileraren data baino hiru egun lehenago. Deialdian adieraziko da bilera non egingo den, zein ordutan, eta zeintzuk gai aztertuko diren bertan. Organoko kideek denboraz eskuratu beharko dituzte aztergaiei dagozkien dokumentuak eta, edonola ere, bileraren data baino 24 ordu lehenago.

4.– Edonola ere, aztergaiak osatzen dituzten puntuak zehatz eta mehatz jasoko dira deialdian. Puntu horien artean agertu beharko dira organoko kideen % 10ek, gutxienez, idatziz eskatutakoak bilerako eguna baino bost egun lehenago behintzat.

5.– Aztergaietan puntu gehiago sartu nahi dituzten batzarreko kideek bilera-eguna baino 72 ordu lehenago egin behar diote eskaera ikastegiko idazkari akademikoari. Eskaera gutxienez bost kidek egin behar dute.

6.– Aztergaietan agertzen ez diren puntuei buruzko erabakirik ezingo da hartu; baina organoko kideen bi heren baino gehiago badaude bileran, eta botazioa eginda gehiengo absolutuak gaia premiazkoa dela uste badu, erabakia hartu ahal izango da.

7.– Organoak jarduera daukan egoitzetan eta gainerako tokietan eman beharko da argitara deialdia, organoko kideei bilerarako deia egiten zaien egun berean, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

***12. artikulua.–*** Kide izatea eta leku hutsak betetzea.

1.– Kide anitzeko organoko kide izatea norberari dagokion ezaugarria da eta ezin da beste inoren gain utzi. UPV/EHUko Estatutuetako 228. artikuluan aipatutako egoeretan utziko dio organoko kide batek kide izateari.

2.– Organoa behin eratuta, hutsik geratuko diren lekuak kasuan kasuko zerrendetako ordezkoek beteko

extraordinarias no se incluirá ni aprobación de actas anteriores ni ruegos ni preguntas.

4.– Las reuniones urgentes tendrán carácter extraordinario y podrán convocarse con una antelación de 24 horas como mínimo. En estos supuestos, al comienzo de la reunión deberá ser ratificada la urgencia de la convocatoria. La no ratificación supondrá la finalización automática de la sesión.

***Artículo 11.–*** Realización de la convocatoria.

1.– Corresponde a la presidencia de cada órgano colegiado realizar la convocatoria de las sesiones de dicho órgano.

2.– Deberá convocarse al órgano colegiado si así lo solicitara el 25% de los miembros del mismo, debiendo celebrarse la sesión con carácter extraordinario en el plazo máximo de siete días hábiles desde la solicitud.

3.– La convocatoria se formalizará por la Secretaría del órgano con la suficiente antelación y como mínimo tres días antes de la celebración de la sesión; en ella se expresarán el lugar, la hora y el orden del día de la reunión. La documentación relativa al orden del día habrá de estar a disposición de los miembros del órgano con la suficiente antelación y, en todo caso, 24 horas antes de la reunión.

4.– En todo caso han de especificarse con la debida precisión en la convocatoria los puntos que integran el orden del día, que deberán incluir los solicitados por escrito, con una antelación mínima de cinco días en relación con la fecha de la convocatoria, por al menos un 10% de los miembros del órgano.

5.– Un mínimo de 5 miembros de la Junta podrá solicitar la inclusión de los puntos que estime pertinentes en el orden del día en un plazo mínimo de 72 horas previas a la celebración de la sesión, dirigiendo su solicitud al Secretario o Secretaria Académica del Centro.

6.– No podrá adoptarse decisión sobre ningún asunto que no figure incluido en el mismo, a menos que estén presentes más de dos tercios de los miembros del órgano y se declare la urgencia del asunto con el voto favorable de la mayoría absoluta de los presentes.

7.– La convocatoria deberá hacerse pública en todas las sedes y demás espacios físicos donde el órgano tenga actividad para general conocimiento, el mismo día en que se comunique a los miembros del mismo.

***Artículo 12.–*** Condición de miembro y cobertura de vacantes.

1.– La condición de miembro del órgano colegiado es personal e intransferible, perdiéndose por las causas recogidas en el artículo 228 de los Estatutos de la UPV/EHU.

2.– Constituido el órgano, las bajas que se produzcan serán cubiertas con los suplentes de las respectivas

dituzte. Aipatutako irizpideari jarraitu ondoren bete gabe geratzen den plaza kopurua talde bateko kideen % 50 baino handiagoa edo organoko kideen % 30 baino handiagoa bada, hauteskunde partzialak egingo dira. Modu horretara hautatuak kide izango dira agintaldia amaitu arte.

***13. artikulua.–*** Kide anitzeko organoetako kideen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Kide anitzeko organoetako kideek organoen bileretara joateko eskubidea eta joan beharra daukate, eta arautegi honek betearazten dizkien eginkizunak betetzekoa. Bileretara joateak unibertsitateko gainerako betebeharrak betetzetik salbuetsiko ditu organoetako kideak, baina kasuan kasuko organoek beharrezko neurriak hartuko dituzte betebehar horiek bete egiten direla eta zerbitzua eman egiten dela bermatzeko.

2.– Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute euren eginkizunetarako beharrezko izan dezaketen unibertsitateko dokumentazioa eta informazioa eskatzeko. Eskaera formala aurkeztu beharko dute horretarako Erregistroan, eta jasota utzi eskaeraren data.

***14. artikulua.–*** Kide anitzeko organoak eratzea.

1.– Kide anitzeko organoak balioz eratzeko beharrezkoa izango da kideen gehiengo absolutua egotea bertan lehen deialdian; edo kideen heren bat, gutxienez, bigarren deialdian. Edonola ere, organoko burua eta idazkaria beti egon beharko dira edo, bestela, euren ordezkoak.

2.– Kide anitzeko organoko kide bakoitzak beste baten ordez baino ezin izango du eman botoa. Organoa eratzeko quorumerako ez dira zenbatuko organoko kideek beste batzuen esku utzitako botoak.

3.– Organoa bigarren deialdian eratzeko beharrezkoa izango den quoruma beharrezkoa izango da bozketa guztietan.

4.– Lehen eta bigarren deialdiaren artean 15 minutuko tartea egongo da.

5.– Ezingo da utzi botoa kide anitzeko organoko beste kide baten esku.

***15. artikulua.–*** Bileren nondik norakoak.

1.– Kide anitzeko organoko buruak bilera behar bezala antolatuko du eta, horretarako arrazoirik egonez gero, bertan behera utzi ahal izango du.

2.– Eztabaidak aztergaiei jarraituz egingo dira. Dena dela, beharrezkoa izanez gero, kide anitzeko organoak bileraren ordena aldatzeko erabakia har dezake, organoko buruak proposamena egin ondoren.

listas. Caso de que el número de bajas no susceptibles de cobertura por la vía anterior afecte al 50% de miembros del estamento respectivo o al 30% de los miembros del órgano, se realizarán elecciones parciales para cubrir las bajas que se hubiesen producido. Quienes así resulten elegidos conservarán su condición hasta la expiración del mandato a sustituir.

***Artículo 13.–*** Derechos y deberes de los miembros de los órganos colegiados.

1.– Los miembros de los órganos colegiados tienen el derecho y el deber de asistir a las reuniones del órgano al que pertenezcan debiendo desempeñar las funciones a que vengan obligados por este Reglamento. La asistencia a las sesiones eximirá de otros deberes universitarios, debiendo los órganos concernidos arbitrar las medidas oportunas para permitir el cumplimiento de este deber y el mantenimiento del servicio.

2.– Lo miembros de los órganos colegiados tienen derecho a solicitar y acceder a toda la documentación e información necesarias para el ejercicio de sus funciones. Para ello presentarán una solicitud formal, a través del Registro, dejando constancia de la fecha de la misma.

***Artículo 14.–*** Constitución de los órganos colegiados.

1.– El órgano colegiado quedará válidamente constituido en primera convocatoria, con la presencia de la mayoría absoluta de sus miembros y, en segunda convocatoria, con la presencia de al menos la tercera parte de sus miembros. En todo caso, será necesaria la asistencia de la Presidencia del órgano y de la persona que ocupe la Secretaría o, en su caso, de las personas que les sustituyan.

2.– Cada uno de los miembros del órgano colegiado podrá ejercer como máximo un voto delegado. A los efectos de alcanzar el quórum constitutivo, no se computarán las delegaciones de voto.

3.– El quórum necesario para la constitución en segunda convocatoria habrá de mantenerse en toda la votación.

4.– El plazo a respetar entre la primera y segunda convocatoria será de 15 minutos.

5.– No se admitirá la delegación de voto en otros miembros del órgano colegiado.

***Artículo 15.–*** Desarrollo de la sesión.

1.– Corresponde a la Presidencia del órgano colegiado, asegurar un desarrollo ordenado de la sesión, que podrá suspender en cualquier momento por causa justificada.

2.– Los debates se ajustarán al orden del día. No obstante, podrá ser alterada la secuencia por acuerdo del órgano colegiado cuando así lo aconsejen las circunstancias y a propuesta de quien presida la sesión.

3.– Organoko buruak, beharrezko ikusten badu, eztabaidaren denbora mugatu ahal izango du, bai eta gaiaren botazioa egin aurretik egon daitezkeen partehartzeen kopurua ere.

4.– Kide anitzeko organoetako kideek aktan agerrarazi ahal izango dute euren botoa eta horren azalpena. Azalpen hori idatziz eman beharko dute botazioa egitean. Unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto partikularrak beti agerraraziko dira haiekin batera.

5.– Kide anitzeko organoko buruak organoko kide ez diren pertsonak gonbidatu ahal izango ditu bileretara egoki deritzonean, aztergaietako punturen batekin zerikusia daukan iritzia edo informazioa eman diezaioten kide anitzeko organoari. Gonbidatuen izen-abizenak bilerako aktan jasoko dira, botoa emateko eskubidea izango ez duten arren.

***16. artikulua.***– Botazioa.

1.– Berdinketa izanez gero, berriro egingo da botazioa; eta hala ere berdinketa izanez gero, organoko buruaren kalitate botoak erabakiko du.

2.– Botazioa isilpekoa izango da kide anitzeko organoko kideren batek eskatzen duenean. Dena dela, botazioa beti izango da isilpekoa pertsonei buruzkoa denean.

3.– Aurkako botoa ematen dutenek eta horretarako arrazoia azaldu, ez dute erantzukizunik izango kide anitzeko organoak hartutako erabakietan, eta ezta ere abstenitzen direnek. Botazioa isilpekoa bada, interesatuak boto-txartela emango dio organoko idazkariari botazioko unean eta, txartel horrekin batera, emandako botoaren arrazoia azaltzen duen testua. Boto-txartela eta testua aktari erantsiko zaizkio.

4.– Erabakiak hartu ahal izateko, emandako boto baliodunen gehiengo soila beharko da. Beraz, proposamen bakarra dagoenean, onartua izango da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago badira. Bi proposamen daudenean, aldeko boto gehien lortzen dituena onartuko da. Proposamenak bi baino gehiago direnean, emandako botoen gehiengoa lortzen duena onartuko da; edo, lehenengo botazioan boto gehien lortu dituzten bi proposamenak hartuta, bigarren botazioan boto gehien lortzen dituena.

***17. artikulua.***– Bileretako aktak.

1.– Idazkariak bilerako akta egingo du. Aktak bileran bertan edo hurrengoan onartuko dira, eta hurrengo bilerako aztergaiei dagozkien dokumentuekin batera banatuko dira akten zirriborroak. Aktak, behin onartuta, idazkariak sinatuko ditu eta organoko buruak ontzat emango.

2.– Aktan honako hauek jasoko dira nahitaez: bilerara etorri direnen eta etorri ez direnen zerrenda;

3.– La Presidencia del órgano podrá limitar, si las circunstancias así lo aconsejan, el tiempo total del debate o el número de intervenciones sobre un tema antes de pasar a las correspondientes votaciones.

4.– Los miembros del órgano colegiado podrán hacer constar en el acta su voto particular y los motivos que lo justifican, entregándolo por escrito en el momento de la votación. Cuando se trate de propuestas realizadas a otros órganos de la Universidad, los votos particulares de sus miembros se harán constar siempre conjuntamente con aquéllas.

5.– La presidencia del órgano colegiado podrá invitar a sus reuniones a personas que no sean miembros del mismo cuando lo estime oportuno, con el objeto de que aporten opiniones o informaciones de interés para el órgano colegiado en asuntos relacionados con algún punto del orden del día. Se hará constar en el acta de la reunión la asistencia de invitados, quienes en ningún caso tendrán derecho a voto.

***Artículo 16.***– Votación.

1.– En caso de votaciones con resultado de empate, se efectuará una nueva votación y si persistiera el empate, la Presidencia del órgano deberá ejercer el voto de calidad.

2.– La votación será secreta, siempre que lo solicite algún miembro del órgano colegiado y, en todo caso, cuando afecte a personas.

3.– Quienes voten en contra y hagan constar su motivada oposición, así como quienes se abstengan, quedarán exentos de la responsabilidad que, en su caso, pueda derivarse de los acuerdos del órgano colegiado. A tal efecto, cuando la votación sea secreta, el interesado o la interesada, en el mismo acto de votación, deberá entregar su papeleta a la Secretaría del órgano, junto con el texto explicativo de su motivada oposición, que quedarán adjuntados al acta.

4.– Los acuerdos habrán de adoptarse por mayoría simple de votos válidamente emitidos. En consecuencia, en caso de que existiera una única propuesta, ésta quedará aprobada si cuenta con más votos afirmativos que negativos. Si hubiera dos propuestas, se aprobará la que más votos obtenga. Habiendo más de dos propuestas, quedará aprobada aquella que obtenga la mayoría de los votos emitidos, o en segunda votación, la que obtenga más votos de entre las dos más votadas en la primera votación.

***Artículo 17.***– Del acta de la sesión.

1.– La Secretaría levantará acta de la sesión. Las actas se deberán aprobar en la misma o siguiente sesión y los borradores de las mismas se adjuntarán a la documentación que acompaña el orden del día de aquélla. Una vez aprobadas serán firmadas por la Secretaría con el Visto Bueno de la Presidencia.

2.– El acta incluirá necesariamente la relación de miembros asistentes y ausentes, el orden del día, el lu-

aztergaien zerrenda; bileraren tokia eta eguna; bileran aztertutako puntuak; botazioak (nola egin diren) eta emaitzak; hartutako erabakien edukia eta, egokitzat ikusiz gero, arrazoiaren azalpen laburra.

3.– Aktan boto partikularrak ere jasoko dira, kide anitzeko organoko kasuan kasuko kideek hala eskatzen badute. Kide anitzeko organoko edozein kidek eskatu ahal izango du bere parte-hartzea edo proposamena hitzez hitz jasotzeko aktan. Horretarako, idatziz aurkeztu beharko du testua eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak esango duen moduan.

4.– Kide anitzeko organoko kideek aktan aldaketak egiteko proposamenak egin ahal izango dituzte akta onartzeko unean. Idazkariak proposatu den aldaketa egiaztatuko du, eta gehiengoak aldeko botoa ematen badu, onartu egingo da.

5.– Kide anitzeko organoa aldatu baino lehen bilera bat egin beharko da onartzeke dauden akta guztiak onartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa gertatzen bada, akten zirriborroak bidaliko zaizkie kide anitzeko organoko kide zirenei eta hamar eguneko epea emango zaie erreklamazioak egiteko. Ez bada aurkezten erreklamaziorik esandako epearen barruan, aktak onartutzat emango dira; erreklamaziorik aurkeztuz gero, kide anitzeko organo aldatuak egingo duen lehen bileran onartu beharko dira aktak.

6.– Aktak onartu ostean, kasuan kasuko kide anitzeko organoko kide guztiei bidaliko zaizkie bai posta elektronikoz bai posta arruntez, pertsonen intimitatea behar bezala babestuta. Era berean, iragarki-oholean emango dira argitara.

***18. artikulua.–*** Erabakiak argitaratzea.

1.– Idazkariak kide anitzeko organoak hartutako erabakien fede emango du eta ziurtagiriak egingo ditu.

2.– Organoko buruak eta idazkariak ziurtatu beharko dute hartutako erabakiak argitara ematen direla iragarki-oholean, eta gutxienez hilabete egongo direla argitaratuta jendaurrean. Izan ere, epe horren barruan egongo da aukera kasuan kasuko errekurtsoa aurkezteko errektoreari.

3.– Aipatutakoaz gain, pertsonei buruzko erabakiak jakinarazi egin beharko zaizkie interesatuei. Erabakiak jakinarazpena egiten den unetik aurrera izango ditu ondorioak. Jakinarazpena Administrazio Prozeduraren Legean xedatutako moduan egingo da.

4.– Hartutako erabakiak hiru egun balioduneko epean emango dira argitara, gehienera ere, eta pertsonen intimitatea babestuta.

***19. artikulua.–*** Erabakiak betearaztea eta errekurtsoak jartzea administrazio-bidean.

gar y la hora en la que se ha celebrado la sesión, los puntos tratados, forma y resultado de la votación y el contenido de los acuerdos adoptados, en su caso, con una sucinta motivación.

3.– En el acta figurará, a solicitud de los miembros del órgano colegiado interesado, los votos particulares en su caso formulados. Cualquier miembro del órgano colegiado puede solicitar la trascripción íntegra de su intervención o propuesta siempre que la aporte por escrito de forma inmediata o, en su caso, en el término que determine la Presidencia del órgano.

4.– Los miembros del órgano colegiado podrán proponer modificaciones al acta en el momento en que sea sometida a su aprobación. La Secretaría contrastará la propuesta de modificación que será aprobada con el voto favorable de la mayoría.

5.– Previa a la renovación del órgano colegiado se deberá convocar una sesión para la aprobación de las actas pendientes. En caso de que dicha convocatoria o sesión no hubiera sido posible, se remitirá el borrador de éstas a quienes eran miembros del órgano colegiado, que dispondrán de un plazo de diez días para hacer reclamaciones sobre su contenido. En el caso en que no se produzcan reclamaciones sobre su contenido transcurrido dicho plazo, se considerarán aprobadas; en caso contrario se someterán a su aprobación en la siguiente sesión del órgano renovado.

6.– Una vez aprobadas las actas se harán públicas mediante su remisión vía correo electrónico y postal a todos los miembros del órgano colegiado, salvaguardando, en todo caso, la intimidad de las personas. Igualmente, se las dará publicidad a través del tablón de anuncios.

***Artículo 18.–*** Publicidad de los acuerdos.

1.– La Secretaría dará fe de los acuerdos adoptados por el órgano colegiado y librará las correspondientes certificaciones.

2.– En cualquier caso, la Secretaría y la Presidencia del órgano deberán garantizar la efectividad y permanencia de la publicidad de los acuerdos adoptados a través del tablón de anuncios y como mínimo un mes desde su publicación, tiempo durante el cual correrá el plazo a los efectos de interponer el correspondiente recurso ante el Rectorado.

3.– Con independencia de lo anterior, los acuerdos nominativos habrán de notificarse a las personas a las que afecten directamente. El acuerdo será efectivo desde el momento en que se produzca la citada notificación en los términos establecidos por la Ley de Procedimiento Administrativo.

4.– Los acuerdos adoptados se harán públicos en un plazo máximo de tres días hábiles, salvaguardando debidamente la intimidad de las personas.

***Artículo 19.–*** Ejecutabilidad y recurso en vía administrativa.

1.– Kide anitzeko organoak hartutako erabakiek onartzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak, erabakian bertan beste ezer adierazi ez bada behintzat. Erabakiak publikoak dira eta unibertsitateko kasuan kasuko organoak jakinaren gainean jarriko dira.

2.– Arautegi honetako 5. artikuluan aipatzen diren kide anitzeko organoek hartzen dituzten erabakien kontra gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erektoreari, hilabeteko epean.

IV. KAPITULUA
KIDE BAKARREKO ORGANOAK

***20. artikulua.***– Zuzendaria Izaera, hautaketa eta agintaldiaren iraupena.

1.– Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako kide bakarreko gobernu, ordezkaritza eta administrazio-organoa da zuzendaria.

2.– Estatutuetan xedatutakoari jarriki hautatuko da, unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasleen artetik.

3.– Ikastegiko zuzendaria errektoreak izendatu behar du, eta izendatu ondoren hasiko da bere eginkizunak betetzen. Agintaldia lau urtekoa izango da.

4.– Zuzendaria sufragio unibertsal haztatuaren bidez aukeratuko da, Hauteskunde Arautegi Orokorrean xedatutakoaren arabera.

5.– Eskola Batzarrak finkatuko du zuzendaria aukeratzeko hauteskundeen hasiera, eta baita ere hautagai-zerrendak aurkezteko epea.

6.– Eskolakoak diren eta arduraldi osoan dauden irakasle guztiak izan daitezke hautagaiak. Agintaldia lau urtekoa izango da, eta berriro aukeratu ahal izango da jarraian, baina behin baino ez.

7.– Hautagai-zerrendak eskolako erregistroan aurkeztuko dira, interesatuak sinaturik eta programa eta zuzendaritza-taldeko kideen izenekin batera.

8.– Hautagaien zerrendak eta euren programak eskolako iragarki-oholean jarriko dira, zerrendak aurkezteko epea amaitu ondoren.

***21. artikulua.***– Zuzendaria hautatzea.

1.– Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako zuzendariaren kargua hutsik balego, hauteskundeetarako deia egingo litzateke. Zuzendariaren kargua hutsik geratu eta handik hilabetera, gehienez ere, Eskola Batzarrak ezohiko bilera egingo du, hauteskundeetako egutegia ontzat emateko. Hauteskunde-prozesua organo eskudunaren erabakiaren bidez irekiko da. Zuzendaria da organo eskuduna hauteskundeetarako deia egiteko, Eskola Batzarraren aldez aurreko onespenaz.

1.– Los acuerdos adoptados por el órgano colegiado serán efectivos desde su aprobación, si en los mismos no se hubiera dispuesto otra cosa. Los acuerdos son públicos y se dará traslado de ellos a los órganos de la Universidad que corresponda.

2.– Contra los acuerdos de los órganos colegiados relacionados en el artículo 5 de esta normativa es posible interponer el correspondiente recurso de alzada en el plazo de un mes ante el Rector o Rectora.

CAPÍTULO IV
ÓRGANOS UNIPERSONALES

***Artículo 20.***– Director o Directora. Naturaleza, elección y duración del mandato.

1.– El Director o Directora es un órgano unipersonal de gobierno, representación y administración de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales.

2.– Serán elegidos, en los términos establecidos por los estatutos, entre los profesores y profesoras con vinculación permanente a la universidad.

3.– El Director o Directora del Centro comienza a ejercer sus funciones con el nombramiento por el Rectorado. La duración del mandato será de cuatro años.

4.– Se elegirá por sufragio universal ponderado conforme a los criterios establecidos en el Régimen Electoral General.

5.– La Junta de Escuela determinará el inicio del período electoral para la elección de Director o Directora y el plazo para la presentación de las candidaturas.

6.– Podrán ser candidatos o candidatas aquellos profesores o profesoras que, perteneciendo a la Escuela, estén en dedicación a tiempo completo. Su mandato será de cuatro años, pudiendo ser reelegido o reelegida consecutivamente por una sola vez.

7.– Las candidaturas deberán presentarse en el Registro de la Escuela, firmadas por el interesado o interesada y acompañadas del programa de actuación y la propuesta de las personas que forman su equipo.

8.– Los candidatos y candidatas propuestas, así como sus programas, serán publicados en el tablón de anuncios de la Escuela al finalizar el período de presentación.

***Artículo 21.***– Elección del Director o Directora.

1.– Las vacantes de Director o Directora de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales serán cubiertas mediante nuevas elecciones. Para ello, en el plazo máximo de un mes contado a partir de aquel en el que se haya producido la vacante, se convocará a la Junta de Centro, en sesión extraordinaria, para fijar el calendario electoral. El comienzo de todo proceso electoral se hará por acuerdo del órgano competente. Es órgano competente para la convocatoria de elecciones el Director o Directora, previo acuerdo de la Junta de Centro.

2.– Hautagai-zerrendak unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira. Idatzia ikastegiko hauteskunde-batzordeko buruari zuzenduko zaio eta epea hamar egunekoa izango da hauteskundeetarako deia egiten duen erabakia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

3.– Ikastegiko zuzendariaren kargurako hautagai-zerrendari gobernu-taldearen egitura eta programa erantsi beharko zaizkio.

4.– Hautagai-zerrendak aurkezteko epea behin bukatuta, hauteskunde-batzordeak jendaurrean jarriko ditu zerrenda onartuak, eta jardunean dagoen zuzendariari emango dio horren berri bost eguneko epean.

5.– Hautagai aurkeztu nahi izanez gero, hautagaiak idatzia bidali beharko dio kasuan kasuko organoari, eta Ikastegi Batzarreko kideen % 10aren babesa izan beharko du.

6.– Hautagai izateak hauteskundeko emaitzak onartzea dakar, eta, garaile izanez gero, karguari dagozkion eginkizunak onartzea.

7.– Botazioa egin ahal izateko, kide anitzeko organoa balioz eratzeko beharrezko den kide-kopurua egon beharko da bertaratuta.

8.– Botazio-egunean bere hauteskunde-barrutian egoterik ez dutenek botoa aldez aurretik eman dezatela onartuko dute hauteskunde-batzordeek, botazio eguna baino lehenagoko hiru egun baliodunetan eta behar den ziurtagiria emanda.

9.– Boto horiek gutunazal ofizial itxian bidali beharko dira. Gutunazal itxi hori eta NANaren fotokopia bat beste gutunazal batean sartu beharko dira, dagokion mahaiburuari zuzendurik. Gutunazal horren kanpoaldean hauteslearen izen-abizenak eta zein taldetako kidea den adierazi beharko da, eta hautesleak hegalean sinatu eta zinta itsasgarriarekin ondo itxiko du.

10.– Behin botazioa amaituta, horrela emandako botoak boto-kutxan sartuko dira, hauteslea erroldan agertzen dela egiaztatu ondoren. Hautesleren batek botoa aldez aurretik eman arren hauteskunde-egunean ere ematen badu, aldez aurretik emandako botoak balioa galduko du eta ez da kutxan sartuko.

11.– Hautesleak berak eman beharko dio aldez aurretiko botoa hauteskunde-mahaiko buruari edo eskumenak eskuordetuta dituenari.

***22. artikulua.***– Botazioa.

1.– Zuzendaria hautatzeko hauteskundeetako botoa haztatua izango da, ikastegiko talde-banaketaren araberakoa. Taldeak eta bakoitzari dagozkion ehunekoak honakoak dira:

– A taldea, UPV/EHUrekin lotura iraunkorra duten irakasleak, % 51.

2.– Las candidaturas se presentarán en las oficinas del Registro General de la Universidad, dirigidas al Presidente o Presidenta de la Comisión Electoral del centro, en un plazo de diez días a partir del día siguiente a la publicación del acuerdo de convocatoria de elecciones.

3.– La presentación de las candidaturas para Director o Directora de centro irá acompañada de la estructura del equipo de gobierno y de su programa.

4.– Transcurrido el plazo de presentación, la Comisión Electoral hará públicas las candidaturas aceptadas y lo comunicará al Director o Directora en funciones en un plazo máximo de cinco días.

5.– La condición de candidato o candidata deberá ser manifestada formalmente a través de un escrito de la persona interesada dirigido al órgano correspondiente, e irá avalada por el 10% de los miembros de la Junta de Centro.

6.– La aceptación de la condición de candidato o candidata lleva consigo la obligación de asumir el resultado de la votación y, en su caso, las obligaciones del cargo.

7.– La votación exigirá, en todo caso, la presencia requerida para la válida constitución de un órgano colegiado.

8.– A quienes por cualquier circunstancia no pudieran estar presentes en su demarcación electoral el día señalado para tal fin, las Comisiones electorales admitirán el Depósito de voto expidiendo el correspondiente justificante, durante los tres días laborables anteriores a la fecha de votación.

9.– Dichos votos deberán ir en papeleta y sobre oficial cerrado que será introducido junto con una fotocopia del DNI. en otro sobre dirigido al Presidente o Presidenta de la Mesa correspondiente, indicando en el exterior el nombre y apellidos del votante así como el colectivo al que pertenece, debiendo firmar en la solapa que deberá ser precintada con cinta adhesiva.

10.– Cerrada la votación, se procederá a la introducción en la urna de los votos así emitidos previa comprobación de su inscripción en el censo. Si alguno de estos votos correspondiera a alguien que haya emitido ya su voto personalmente, el depositado perderá su validez, no siendo introducido en la urna.

11.– El Depósito de voto deberá realizarse personalmente por el o la votante inscrito en el censo electoral ante el Presidente de la Comisión Electoral, o persona en quien delegue.

***Artículo 22.***– Votación.

1.– El voto para la elección del Director o Directora será ponderado por sectores de la Comunidad Universitaria de su centro de acuerdo con los siguientes cuerpos electorales y porcentajes:

– Sector A, integrado por personal con vinculación permanente a la UPV/EHU, 51%.

– B taldea, bestelako irakasle eta ikertzaileak, % 18.

– C taldea, ikasleak, % 20.

– D taldea, administrazio eta zerbitzuetako langileak, % 11.

2.– Botoen haztapena egiteko, hautagai-zerrendei emandako baliozko botoak baino ez dira kontuan izango. Artikulu honen ondorioetarako, baliozko botoak hautagai bakar bat markatuta dutenak izango dira. Beraz, ez dira baliozko bototzat hartuko ez boto zuriak, ez boto baliogabeak.

3.– Zenbaketaren akta egin ondoren, hauteskunde-batzordeak hautatutako hautagaia aldarrikatuko du behin-behinekoz.

4.– Baliozko botoen haztapena kasuan kasuko hauteskunde-batzordeak egingo du. Botoen haztapenari dagokion koefizientea lortzeko, zatiketa egingo da: talde bakoitzari dagokion ehunekoa zati hautagai-zerrenda guztiek talde horretan lortutako baliozko boto guztiak. Hauteskunde batzordeak koefiziente hori ezarriko die hautagai-zerrenda bakoitzak talde bakoitzean lortutako botoei, ondorengo puntuan adierazitako irizpideei jarraituz.

5.– Gehiengoa osoa izango da boto haztatuen % 50 baino gehiago lortu bada.

6.– Hautagai bakoitzak guztira lortutako boto haztatuak hautagai bakoitzak talde bakoitzean lortutako botoen batura izango dira.

7.– Lehenengo txandan hautetsi aldarrikatuko da baliozko botoen erdiak baino gehiago biltzen dituen hautagaia, aurreko zenbakiak adierazitako haztapenak behin aplikatuta. Inork lortuko ez balu boto-kopuru hori, bigarren botazioa egingo da, baina horretan bakarrik lehiatu ahal izango dira lehen botazioan boto gehien lortu duten hautagai biak, lehen aipatutako haztapenak kontuan hartuta. Bigarren txandan botoen gehiengo soila lortzen duen hautagaia aldarrikatuko da hautetsi, botoen haztapena egin ondoren. Bigarren txanda lehenengo txandako emaitzak argitaratu eta gehienez 10 egunera egingo da.

8.– Hautagai bakarra badago, lehen botazioa baino ez da egingo. Botazio horretan hautesleek alde, kontra edo zuri eman ahalko dute botoa. Hautagai bakar hori ikastegiko zuzendari aldarrikatuko da, baldin eta emandako baliozko botoetatik aldeko botoak kontrakoak baino gehiago badira, lehenago zehaztu diren haztapenak behin aplikatuta.

– Sector B, integrado por otro personal docente e investigador, 18%.

– Sector C, integrado por los estudiantes, 20%.

– Sector D, integrado por el personal de administración y servicios, 11%.

2.– La ponderación se realizará teniendo en cuenta, en todos los sectores, el número de votos a candidaturas válidamente emitidos. A efectos del cómputo a que se refiere el presente artículo se considerarán votos a candidaturas válidamente emitidos las papeletas en las que figure señalado un único candidato o candidata. Por tanto no se considerarán votos a candidaturas válidamente emitidos los votos en blanco, ni los nulos.

3.– Elaborada el Acta de Escrutinio, la Comisión Electoral procederá a realizar la proclamación provisional del candidato o candidata electo.

4.– La Comisión Electoral correspondiente será el órgano encargado de aplicar los coeficientes de ponderación a los votos válidamente emitidos. El coeficiente de ponderación vendrá dado por el cociente entre el porcentaje indicado para cada sector y el total de votos válidos emitidos a las diferentes candidaturas en dicho sector. La Comisión Electoral aplicará estos coeficientes a los votos obtenidos por cada candidato o candidata en cada sector siguiendo el procedimiento y las condiciones que se indican en el apartado siguiente.

5.– Las operaciones serán realizadas de acuerdo con la fórmula siguiente Se entenderá obtenida la mayoría absoluta cuando se obtenga más del 50% de los votos ponderados.

6.– El total de votos ponderados de cada candidato o candidata se obtendrá sumando los votos recibidos por el candidato o candidata en cada sector.

7.– Será proclamado, en primera vuelta, el candidato o candidata que reciba el apoyo proporcional de más de la mitad de los votos a candidaturas válidamente emitidos, una vez aplicadas las ponderaciones contempladas en el número anterior. Si ningún candidato o candidata alcanzara este número de votos, se procederá a una segunda votación a la que sólo podrán concurrir los dos candidatos o candidatas más apoyadas en la primera votación, teniendo en cuenta las citadas ponderaciones. En la segunda vuelta será proclamado el candidato o candidata que obtenga la mayoría simple de votos, atendiendo a las mismas ponderaciones anteriores. La segunda vuelta se realizará transcurridos como máximo 10 días desde la publicación de los resultados de la primera vuelta.

8.– En el supuesto de una sola candidatura, únicamente se celebrará la primera vuelta. En ella los inscritos en el censo podrán votar a favor, en contra o en blanco de esa única candidatura. El candidato o candidata único presentado será proclamado Director o Directora de centro si obtuviera, de entre los votos a candidaturas válidamente emitidos, más votos favorables que en contra una vez realizadas las ponderaciones establecidas anteriormente.

9.– Hasiera batean hautagai bat baino gehiago egon arren hauteskunde-egunean hautagai bakarra balego gainontzeko hautagaitzak bertan behera utzi dituztelako, txanda bakarra egingo da.

10.– Hautagai hautetsia behin-behinekoz aldarrikatzen denean, erreklamazioak jarri ahal izango dira aldarrikapena egin eta hurrengo bi egunetan. Kasuan kasuko hauteskunde-batzordeak bi eguneko epea izango du (erreklamazioak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita) erreklamazioak ebazteko, eta, ondoren, behin betiko aldarrikatuko du nor den hautetsia.

11.– Hautagai hautetsia behin betiko aldarrikatzearen kontra errekurtsoa jar dakioke errektoreari hiru eguneko epean, eta hark bost eguneko epea izango du errekurtsoa ebazteko. Epe hori igarota ez badu horren gaineko erabakirik eman, erreklamazioa ez dela onartu ulertu beharko da eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du erreklamazio-egileak.

12.– Hautetsia behin betiko aldarrikatu aurretik, hauteskunde-batzordeak baliogabetu egin ahalko du mahai bateko edo zenbaitzuetako botazioa, baldin eta botazioaren emaitzan eragina izan dezakeen akatsik egon bada. Horrelakoetan, berriro egingo da botazioa ahalik eta arinen.

13.– Hauteskundeetarako deia egin eta hautagairik ez badago, edo aurkeztutako bakarrak ez badu hautetsi izateko behar besteko gehiengorik lortu, ikastegiko zuzendariak jardunean jarraituko du, eta beste hauteskunde batzuetarako deia egingo du, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean.

14.– Batzarreko idazkariak errektoreari jakinaraziko dio nor izan den hautetsia, izendapena egin dezan.

***23. artikulua.***– Hauteskunde-egutegia.

1.– Hauteskundeetarako deia egingo duen erabakian jasota egongo da zein izango den hauteskunde-eguna. Erabakia argitaratu eta gutxienez hamar egunera eta gehienez hirurogei egunera izango da, hauteskunde-batzordeak kontrako erabaki arrazoiturik eman ezean.

2.– Erabakian, era berean, jasota egongo da hauteskunde-egutegia:

a) Errolda ixteko eguna.

b) Behin-behineko errolda argitaratzeko eguna.

c) Errolda inpugnatzeko epea.

d) Behin betiko errolda argitaratzeko eguna.

e) Hautagai-zerrendak aurkezteko epea.

f) Behin-behineko hautagai-zerrendak jakinarazteko eguna.

g) Hautagai-zerrendak inpugnatzeko epea.

9.– En el supuesto de que concurriendo inicialmente varios candidatos o candidatas, a la fecha de la votación éstos retiren sus candidaturas y quede un solo candidato o candidata, únicamente se celebrará la primera vuelta.

10.– Contra la proclamación provisional de candidato o candidata electo cabe la interposición de reclamaciones en el plazo de dos días siguientes al de la publicación. La Comisión Electoral correspondiente, resolverá las reclamaciones presentadas en el plazo de los dos días siguientes a la finalización del plazo para la interposición de aquéllas, haciendo pública la proclamación definitiva del candidato o candidata electo o electa.

11.– Contra la proclamación definitiva del candidato o candidata electo o electa cabe interponer recurso ante el Rector o Rectora en el plazo de tres días, quien deberá resolver el recurso en el plazo máximo de cinco días; transcurrido dicho plazo sin haber recaído resolución expresa, el recurrente podrá considerar desestimada su pretensión a los efectos de interponer, en su caso, el pertinente recurso contencioso administrativo.

12.– Antes de la proclamación definitiva, la Comisión Electoral podrá declarar la nulidad de la elección en una o varias Mesas, si existiese algún vicio que pudiera alterar el resultado de la votación. En tal caso, se ordenará la repetición del acto de la votación en el plazo más breve posible.

13.– Si convocadas las elecciones no se hubiera presentado ningún candidato o candidata, o el único presentado no hubiera obtenido la mayoría necesaria para ser proclamado, el Director o Directora del centro continuará en funciones y convocará nuevas elecciones en un plazo máximo de treinta días.

14.– La candidatura que resulte elegida será enviada por el Secretario o Secretaria de la Junta al Rector o Rectora para que proceda a su nombramiento.

***Artículo 23.***– Calendario electoral.

1.– El acuerdo de convocatoria fijará la fecha de celebración de las elecciones, que tendrán lugar, excepto acuerdo contrario de la Comisión Electoral por causa justificada, entre los diez y los sesenta días siguientes a la fecha de publicación de dicho acuerdo.

2.– En el mismo acuerdo se fijará el calendario electoral, que comprenderá:

a) Fecha de cierre del censo.

b) Publicación provisional censo.

c) Plazo de impugnaciones al censo.

d) Publicación definitiva del censo.

e) Plazo de presentación de candidaturas.

f) Proclamación provisional candidaturas.

g) Plazo de impugnación a las candidaturas.

h) Behin betiko hautagai-zerrendak jakinarazteko eguna.

i) Botazioa.

j) Behin-behineko emaitzak jakinarazteko eguna.

k) Behin-behineko emaitzak inpugnatzeko epea.

l) Behin-betiko emaitzak jakinarazteko eguna.

